


2016 | ekaina

www.haurtzaroikastola.eus

TXIN PART 65





Aurkibidea

Hautzaro informatzen	3
Euskararen txokoa.....	14
Hatzak bete lan	17
Ikastolaren eguna 2016	21
Gu ere kazetari	38
Nahaste berraste	42

TXINPART65

www.hautzaroikastola.eus

L.G.: SS-129/2001



ARGITARATZAILEA

Hautzaro Ikastola
Elorrondo, z/g · 20180 Oiartzun
☎ 943 49 16 59

oiartzun@ikastola.eus

DISEINUA, MAKETAZIOA

ETA INPRIMAKETA

antza Komunikazio Grafikoa

Paper birziklatuan inprimatuta



TXIN PART 65

HAURTZARO HAURTZARO GURE IKASTOLA DA

KANTA DEZAGUN DENOK
GEROZ ETA OZENAGO
HAURTZARO HAURTZARO
KANTA DEZAGUN DENK HAURTZARO HAURTZARO
KATUKA SARTU ETA
JAUZI-MAUZIKA IRTEN
HALERE GURETZAT
ZURE ATEAK EZ DIRA SEKULAN IXTEN
HAURTZARO HAURTZARO GURE IKASTOLA DA

BAI!
HAURTZARO IKASTOLA
HEZKUNTZA OLA
TXOKO MAITEA
JAKINDUAREN ARBOLA
BAI!
HAURTZARO IKASTOLA
HEZKUNTZA OLA
TXOKO MAITEA
HAURTZAROKO AMETSEN ETXOLA

OiARTZUNGO IKASTOLA
EUSKARAREN KABIA
TAUPADAZ TAUPADA
EUSKALTZALEAK LOTZEN GAITUEN HARIA
HAURTZAROTIK HAURTZARON
NOLAKO ABENTURA!
MUGARIK GABEKO
IKAS BIDAIA EUSKAL HERRITIK MUNDURA
HAURTZARO HAURTZARO GURE IKASTOLA DA
BAI!
HAURTZARO IKASTOLA
HEZKUNTZA OLA
TXOKO MAITEA
JAKINDUAREN ARBOLA
BAI!
HAURTZARO IKASTOLA
EUSKARAREN KABIA
HEZKUNTZA OLA
GURE ILUSIOEN TXOKO MAITEA
OROTARIKO JAKINTZAREN ATEA/(Bis)

BAI!
HAURTZARO IKASTOLA
HEZKUNTZA OLA
TXOKO MAITEA
JAKINDUAREN ARBOLA (Bis)
BAI!
HAURTZARO IKASTOLA
HEZKUNTZA OLA
TXOKO MAITEA
HAURTZAROKO AMETSEN ETXOLA

OHARRA:
WEBGUNEAN ALE OSOA
KOLORETAN IKUS DAITEKE



Hitzak: Antton Kazabon
Musika: Xabi Solano

Ibilaldiak eta ekintzak

HAUR HEZKUNTZA 1-2-3			
MAILA	NOIZ	NORA / NON	HELBURUA
HH 1	APIRILAK 11	ALTZIBARRERA	INGURUNEAZ GOZATZEA
HH 1	APIRILAK 27	GURUTZERA, KOXKOTENE BASERRIRA	BASERRIKO ANIMALIAK ETA BASERRIA IKUSTEA
HH 1	MAIATZAK 6	IBARGAINGO PARKERA	INGURUAZ GOZATU ETA JOLASTEA
HH 1	MAIATZAK 20	GUADALUPERA	IKASTURTE BUKAERAKO IBILALDIA
HH 1-2-3	APIRILAK 18-29	EUSKARAZ BIZIko IRAKURZALETASUN KANPAINA, IKASTOLAKO JANTOKI GAINEAN	IRAKURZALETASUNA SUSTATZEA
HH 2	ASTEAZKENETAN	BASORA	NATURAN MURGILDUZ JOLASTEA
HH 2	APIRILAK 28	LEKUNGARAI BASERRIRA	ARDIAK IKUSI ETA GAZTA NOLA EGITEN DEN EZAGUTZEA
HH 2	MAIATZAK 17	ALCAMPO HIPERMERKATURA	HIPERMERKATU BAT EZAGUTZEA
HH 2	MAIATZAK 18-20	ELIZALDE AUZORA	DENDAK IKUSTEA
HH 2	EKAINAK 7	SAN MARKOSERA	IKASTURTEARI AMAIERA EMATEA
HH 3	APIRILAK 15	KARRIKA ETA ERGOIENERA	AUZOAK EZAGUTZEA
HH 3	MAIATZAK 5	ITURRARAN PARKETXERA	ERLEEN BIZITZA EZAGUTZEA
HH 3	MAIATZAK 12	ARRAZTALO BARATZEETARA	BARATZEKO LANA EZAGUTZEA
HH 3	EKAINAK 1-2	ARRITXULORA	ZIKLO BUKAERAKO IBILALDIA
HH 1-2-3	MAIATZA	IGERILEKURA	URETAN ELKARREKIN JOLASTEA
HH 2-3	APIRILA ETA MAIATZA	UDAL LIBURUTEGIRA	IRAKURZALETASUNA BULTZATZEA
HH 3	EKAINAK 7	GURUTZERA	IKASTURTE BUKAERAKO IBILALDIA

Lehen Hezkuntza 1. zikloa			
MAILA	NOIZ	NORA / NON	HELBURUA
LH 1	MARTXOAK 16	DBH 4koen AURKEZPENA JANGELAKO ARETOAN. GAIA: GREZIA	GREZIA GAIA SAKONTZEA
LH 1	APIRILAK 20	DBH 4koen AURKEZPENA GURE GELETAN. GAIA: ERROMA	ERROMA GAIA SAKONTZEA
LH 1	APIRILAK 21	OIASSORA IRTEERA	ERROMA GAIA SAKONTZEA
LH 1-2	APIRILAK 18-29	EUSKARAZ BIZIko IRAKURZALETASUN KANPAINA, IKASTOLAKO JANTOKI GAINEAN	IRAKURZALETASUNA SUSTATZEA
LH 1	MAIATZEAN ZEHAR	TXARAKO PARKERA	NATURA BEHATZEA, BIZITZEA ETA ULERTZEA
LH 1-2	MAIATZAK 26	IBARGAIN MUSIKA ESKOLAKOEN KONTZERTUA, UDALETEKO PLENO ARETOAN	MUSIKAZ GOZATZEA
LH 1	EKAINAK 1	KRISTINA-ENEARA IRTEERA	NATURA GAIA SAKONTZEA ETA NATURAZ GOZATZEA
LH 1	EKAINAK 6-7	URTE AMAIERAKO IRTENALDIA, ASTITZERA	GURE ARTEKO HARREMANAK SENDOTZEA
LH 1-2	EKAINAK 14	ZUBEROAKO IKASLEEN ETORRERA, IKASTOLAN	HARREMAN BERRIAK SORTZEA
LH 1-2	EKAINAK 21	SAN JUAN EGUNAREN OSPAKIZUNA, IKASTOLAN	EUSKAL KULTURAN ETA OHITURETAN PARTE HARTZEA
LH 2	APIRILAK 4-MAIATZAK 6	IGERIKETA SAIOAK, OIARTZUNGO KIROLDEGIAN	IGERI EGITEN IKASTEN JARRAITZEA
LH 2	APIRILAK 26	EUSKADIKO ORKESTRA SINFONIKOAREN KONTZERTUA, DONOSTIAKO VICTORIA EUGENIAN	MUSIKAZ GOZATZEA
LH 2	APIRILAK 22 ETA 29 ETA MAIATZAK 6	IRRATSAIOA, OIARTZUN IRRATIAN	IRRATSAIO BAT NOLA EGITEN DEN EZAGUTZEA
LH 2	MAIATZAK 11	NATURA IBILALDIA, OIARTZUNDIK BARRENA	NATURA BEHATZEA, BIZITZEA ETA ULERTZEA
LH 2	MAIATZA	HAZIAK + PROGRAMA, IKASTOLAN	BAKARKAKO ETA TALDEKO HARREMANAK LANTZEA
LH 2	EKAINAK 2-3	URTE AMAIERAKO IRTENALDIA UITZIRA	GURE ARTEKO HARREMANAK SENDOTZEA



Lehen Hezkuntza 2. zikloa

MAILA	NOIZ	NORA / NON	HELBURUA
LH 3	Apirilak 15	Donostiara	Txanelan landutakoaren segimendua egitea
LH 3-4	Apirilak 19	Niessen kultur aretora	Zinea euskaraz ikustea
LH 3	Apirilak 18-29	Jantokiko aretora	Euskaraz Bizi: • Erakusketa ikustea • Juul kanpainako bozketa egitea • Idoia Beratarbiderekin elkarriketa egitea
LH 3-4	Apirilak 25	San Markos mendira	Inguruko ohiturekin jarraitzea
LH 3	Apirila eta maiatza	Herriko liburutegira	Irakurzaletasuna sustatzea
LH 3	Apirilaren azkeneko astea	LH 3A gelara	Gaztelaniaz sortutako "cuentos sonorizados" emanaldiak ikustea
LH 3	Maiatzean	Mendibilgo txara-ra	Bertako ekosistema behatzea
LH 3	Maiatzak 30 eta 31	Baratzera	Ikasturte bukaerako ibilaldia
LH 4	Apirilak 7	Loiolako araztegira	Txanelan landutakoa osatzea
LH 4	Maiatzak 2	Oiartzungo ur-depositura	Txanelan landutakoa osatzea
LH 4	Maiatzean	Mendibilgo txara-ra	Eraikitako itsasontziak probatzera
LH 4	Ekainak 1,2 eta 3	Zuberoara	Ikasturte bukaerako ibilaldia, Zuberoako ikastolekin dugun trukearen barruan

Lehen Hezkuntza 3. zikloa

MAILA	NOIZ	NORA / NON	HELBURUA
LH 5-6	Maiatzak 18	Madalensorora	Bertso jaialdian parte hartzea
LH 5	Maiatzak 26	Pagoetako Parke Naturalera	Ekosistema aztertzea
LH 5	Ekainak 13-15	Zuatza eta Gasteizera	Harremanak sendotzea eta ondo pasatzea
LH 6	Apirilak 13	Arditurriko meategietara	Lehen sektorea ezagutzea
LH 6	Maiatzak 19	Ikastolan	Lexoti bertso jaialdia
LH 6	Ekainak 1-3	Arotz-enean (Etxarri Larraun)	Elkarbizitza eta harremanak lantzea. Ongi pasatzea, ikasturteari bukaera ematea...

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza 1-2-3-4

MAILA	NOIZ	NORA / NON	HELBURUA
DBH1-2-3-4	Apirilak 21	Juul bozketa / Ikastolan	Euskaraz Bizi: irakurzaletasuna sustatzea
DBH1	Maiatzak 19	Lexoti saria / Ikastolan	Euskal kultura ezagutzea eta bertsolaritza sustatzea
DBH1-2-3-4	Maiatzak 17	Eskola Agenda 21: Herri batzarra Oiartzungo udaletxeko pleno aretoan	Ingurumenarekin sentsibilizatzea
DBH1	Ekainak 6-10	Ikastolan / Oiartzunen eta Behe Nafarroako Lartzabal herrian	Ikasturteari amaiera ematea eta lagunartean gozatzea
DBH1-2	Ekaina	Herri kirolak / Ikastolan	Euskal Herriko ondare kulturala ezagutzea (Gorputz Hezkuntza irakasgaiarekin loturiko ekimena)
DBH1	Ekaina	Antzerki emanaldia / Ikastolan	Antzerki tailerrean egindako lana ikustea
DBH2	Apirilak 20	Oiartzun ibaiaren azterketa (Zientzia Tailerra) / Altzibarren	Zientzia tailerreko proiektua aurrera eramatea
DBH2	Maiatzak 9, 16 eta 23	Bizikleta saioak / Herrian zehar	Bizikletan seguru ibiltzea
DBH2-3	Maiatzaren amaiera	Teknologia berriak eta erabilera / Ikastolan	Teknologia berriak ezagutzea
DBH2	Ekaina	Ernioko kobazuloa	Espeleologian aritzea (Gorputz Hezkuntza eta Natur zientziak uztartzen dituen ekintza)
DBH2	Ekainak 8-10	Acedon (Nafarroa)	Ikasturteari amaiera ematea eta lagunartean gozatzea
DBH3	Maiatzaren amaiera	Arraunketa Hibaikakoekin / Oretetan	Arraun mundua gertutik ezagutzea
DBH3	Ekainak 8-10	Gorlizen (Bizkaia)	Ikasturteari amaiera ematea eta lagunartean gozatzea
DBH3-4	Ekaina	Euskarako motibazio saioak / Ikastolan	Euskararen erabilera sustatzea
DBH4	Martxoak 7	Oiartzoko Orientatzailearen bisita / Ikastolan	Orientazio akademikoa ematea
DBH4	Aste Santu aurreko astea	AGIPAD: Osasun Heziketa eta Droga menpekotasunen prebentzioa / plurikontsumoa / Ikastolan	Agipad eta Haurtzaro ikastolaren eskutik osasun heziketa eskaintzea
DBH4	Apirilak 6	Oiartzoko Batxilergo ikastolara bisita / Oiartzon	Orientazio akademikoa eskaintzea
DBH4	Ekaina	Emaginaren saioa / Ikastolan	Osasun heziketa eskaintzea
DBH4	Ekainak 9-13	Catalunya: Coma-ruga / Coma-rugan (Tarragona)	Ikasturteari amaiera ematea eta lagunartean gozatzea



BOTERE HARREMANAK KUDEATZEN IKASTEKO

HAZIAK EGITASMOA MARTXAN JARRI DU HAURTZARO IKASTOLAK

haziak



Egungo gizartearen hainbat arazo (lidergo eta menpekotasun egoera desberdinak) harreman desorekatuen eraginez ematen dira. Haurrek txikitatik horiek kudeatzen ikastea funtsezkoa da eta helburu hori du Haziak egitasmoak, hezkuntza formala zein ez-formala uztartuz.

Haziak egitasmoa norbanako eta entitate ezberdin askok osatzen dugu: idazle, marrazkilaria, diseinatzaile, aholkularia, sortzaile, fisioterapeuta, musikaria, enpresa, norbanako... Proiektu erabat bizia da, egunetik egunera, bizi, ikusi, sentitu eta esperimentatuz hazten ari den egitasmoa, hain zuzen ere.

HAZIAK proiektu esperimentalak dugu eta aurten lehen aldiz aplikatu da Hurtzaro ikastolan. Bi faseetan garatu da LH2ko, LH5eko eta LH6ko gelatan. Fase bakoitzean eta adin tarte bakoitzean gai bat landu da. **Lehenengo fasea** otsailean hasi zen eta enpatia gaia izan zuen ardatz LH2an. LH5ean eta LH6an berriz, norbanakotik talde funtzionamendura igarotzea (lidergoa). **Bigarren fasea**, maiatzan landu da, LH2an harremanen kudeaketa eta LH5ean eta LH6an harremanak eta harreman ereduak.

Haziak egitasmoak, hainbat sortzaileekin batera, aipatu gaien lanketarako espreski material ezberdin asko sortu du, 'Igel marroitoxo' ipuina, 'BarruKLIK' komikia, ikus-entzunezkoak, audioak.... material bakoitza helburu konkretu baterako sortua izan da.

Baina materiala sortzeaz gain, lanerako metodologia zehatza ere prestatu da, lehenik eta behin barrura begirako tartetxo bat izan dute ikasle guztiek. Hau da, datozen egoeratik datozela ere ezertan hasi baino lehen lasaitu eta zentratzeko ariketak egin dituzte. Jarraian ikasle bakoitzari bere unea eskaini zaio, inoren eraginik gabe, berak bakarrik proposatzen den gaia pentsatu eta aztertzeko momentua. Azkenik, guztien artean hausnarketa eta konpartitze tarteak hartu dute protagonismoa. Hau izan da Haziak egitasmoko lanke-ta egin den egunetan jarraitu den dinamika orokorra. Ikasle bakoitzari bere denbora ematea oso garrantzitsua dela baieztatu dugu eta baieztapen hau aplikatzea beharrezkoa dela ikusten dugu.



Gauzatu diren bi faseetatik honakoa nabarmendu nahiko genuke:

- **Lehenengo faseko ASKEBIDEAK:** Lehenengo fase honetan 'Igel Marroitoxo' ipuina (LH2) eta 'BarruKLIK' komikia (LH5-6) izan ditugu lanketarako material nagusia. Ikasleak, geletan landutakoaz gain, askebidetako deitu diogun tailer ezberdinak probatzeko aukera izan dute: 'Esan rap-arekin', 'Esan ipuinekin', 'Esan irudiekin', 'Esan marrazkiekin' eta 'Esan gorpuztarekin'. Askebide hauetako bakoitza gaian aditua den sortzaile batek eman du. Ikasle bakoitzak zein askebide egin edo ezagutu nahi duen erabakitzeak aukera izan du. Ikaragarria izan da ikasleak askebide hauetan ikustea: rapak, ipuinak nortasun ezberdineko pertsonaiak, *collage*-ak.... sortu dituzte.
- **Bigarren faseko IKUS-ENTZUNEZKOAK:** Fase honetan hainbat ikus-entzunezko sortu dira. Ikus-entzunezko hauetan ikasleak beraiek izan dira protagonistak. Hau da, ikasleak beraiek izan dira elkarriketatuak eta baita sortutako istorioen pertsonaiak ere. Material hau ardatz hartuta eta haziak proiektuko metodologia jarraituz, hainbat gai ezberdin jorratzeko aukera izan dute ikasleak (laguntasuna, norbanakoa-ren ametsak, gustuak...)



Haziak egitasmoak argi du botere harremanen inguruko kontuak ez direla eskolara, heziketa formalera soilik mugatu behar. Hau da, ez direla eskolako arazoak soilik, baizik eta aisialdia hezitzailea dela, eskoletan bakarrik ez dela hezitzen. Etxean, kalean, herrian ere hezi eta hazi egiten gara. Horregatik herrian, heziketa ez-formalean ere zabaldu da egitasmoa. Hala, heziketa formal eta ez-formalaren arteko zubia izan nahi du Haziak proiektuak. Herrira begira hainbat ekimen ezberdin sortu dira, hala nola, enpatia jolasak, Futbolariak eta printzesak ikuskizuna, ipuinari ahotsa eta irudiak jartzea....Modu honetara haziak gizarte osoan erein nahi dira.

Azkenik, ikastolako komunitateko parte diren eta proiektua barrutik bizitzen ari diren partaide batzuen iritziak plazaratu nahi ditugu hemen, Haziak egitasmoak suposatu eta ekar dezakeena hobeto ulertzeko oso baliagarriak direnak:

IRAKASLEEK

- "Niri material honek urte osoko laneketa egiteko balio dit eta baita beste hainbat urteetarako."
- "Gaurko saioa mardulena zen eta garrantzitsuen esango nuke. Ona. Oso ona. Egia esan datorren astean nik behintzat ordu bat gehiago hartuko dut galderen atalekin sakontzeko. Merezki du eta."

IKASLEEK

- "Erlaxazio saioan oso gustura sentitu naiz, uste nuen benetan gertatzen ari zela."
- "Gaur haziak-ekin jarraitu nahi dugu."

GURASOAK

- "BarruKlik komikiari esker, seme-alabekin hainbat gauzetaz hitz egiteko aukera izan dugu etxean."
- "Horrelako proiektuak behar-beharrezkoak dira gure seme-alaben heziketan."

Haziak egitasmoak Gipuzkoako Foru Aldundiko Ikasmina diru-laguntza jaso du.

Haziak proiektukoaren inguruan gehiago jakiteko:

www.haziak.eus

Materiala: www.haziak.eus/materiala

Harremanetarako: oiartzun@haziak.eus

ESKOLA AGENDA 21 (2015/16) Elikadura eta hondakinak

HAURTZAROKO IKASLEAK UDALETXEAN: ESKOLA FOROA ETA UDAL FOROA

OIARTZUNGO PINTU EBERDINETAN DAUDEN EKARREN ETA LARRIALDI GUYEEN INGURUAK GARBI MANTENDU

AUTO EBERDINETAKO KALE, PLAZA ETA LORATUAK GARBI MANTENTEA



	ELIZKOLEI SOSTENIMU	ERATEN JARRAITEA	BEATRIKO ELIZKOLEI
IKASLEAK	●	●	●
IKASLEAK	●	●	●
IKASLEAK	●	●	●
IKASLEAK	●	●	●
IKASLEAK	●	●	●
IKASLEAK	●	●	●
IKASLEAK	●	●	●
IKASLEAK	●	●	●
IKASLEAK	●	●	●
IKASLEAK	●	●	●

- **EA21 Eskolarteko Foroa** izan ziren gure ikasleak, maiatzaren 17an, goizeko 11etan hasi zen saioan. LHko eta DBHko maila guztietako ikasleak joan ziren udaletxera, herriko beste ikastetxeko ikasleekin batera, Eskola Agenda 21 egitasmoaren urteko lanak labur-labur azalduko zituen aurkezpena prestatzera. Horretaz gain, ikasleek egindako herri diagnostikoa- ren ondorio orokorrak ere aurkeztuko ziren. Lanak era guztietako parte hartzeko dinamikak erabiliz egin zituzten. Horrela, Udalari udal foroan aurkeztu beharreko eskaerak eztabaidatu, eskaera posible berriak gehitu, eta eskaeren zerrenda lehenetsi zituzten. Ateratako emaitzak horma irudi batean irudikatu zituzten eta eskaeren behin betiko zerrenda osatu zuten. Gainera, eskaerak prestatzeaz gain, konpromisoen zerrenda ere adostu zuten.

- **EA21 Udal foroa** maiatzaren 27an egin zen. Ikasleak udaletxera bertaratu ziren, herriko udal ordezkari- kin bilera garrantzitsua baitzuten. Euren eskari pro- posamen eta konpromisoen berri eman zieten uda- leko arduradunei. Udal ordezkariak arretaz entzun zieten gazteei, eta ikasleek proposatutako hobekun- tzak aztertuko zituztela adierazi zuten.

Udalaren erantzunen eta ekintzen zain geratu gara ikas- tolan, baina ziur gaude laster erantzungo digula alkateak. Horregatik, aldeztu aurretik, eskertu egin nahi dugu Eskola Agenda 21 egitasmoa aurrera eramateko alkateak, zine- gotziak eta udal langileek eskaintzen diguten laguntza.

Guztiok dugu zeresana Oiartzun herria garbiagoa eta jasangarriagoa egiteko.





Txinpart eskolaz kanpoko ekintzak

Jakina dugun bezala, Haurtzaro ikastolan eskolaz kanpoko ekintzen eskaintza oso zabala da, eta parte-hartzea ere oso altua. 4 urtetik hasi eta 16 urte bitarte, kultura zein kirol ekintzetan parte hartzen duten neska-mutilen kopurua ikaragarria da.

Azken ikasturteotan, ekintza berrien eskaintza zabaldu dugu; iaz, bultzada bat eman zitzaion, berriz ere, abesbatzari, eta musika tailerrean abesten eta dantzan aritzen diren 4 eta 5 urteko neska-mutilak pozik eta gustura joaten dira beren asteroko saioetara.

2015/2016 ikasturtean, robotika jarri dugu martxan. Beste ikasturte batzuetan Haurtzaro ikastolak opor txikietan eskaini baditu ere saio hauek (Aste Santuko oporretan, esate baterako), aurten ikasturtean zehar egiteko aukera eskaini dugu. Izugarritzko arrakasta izan du, eta ikasleak oso pozik eta gustura daude jarduerarekin.



ZER DA ROBOTIKA?

- Diziplina anitzak integratzen dituen proiektua da.
- Diseinua, berrikuntza, arazoaren ebazpena, talde lana, matematika, zientzia eta teknologia ikasteko beste modu bat.
- Sistema eta azpisisistema kontzeptuaren eredu hezi-garriak eskaintzen ditu.

Robotak mugitu egiten dira, sentitu egiten dute, inguruko seinaleak hartzen dituzte, jokabide adimendunak erakusten dituzte, eta objektuak manipulatzeko. 3 azpisisistema dira: mekanika-mugimendua, sentsoreak eta logika-kontrola-programazioa.



Ikasleak zur eta lur geratzen dira robotak ingurunea errekonozitzen duenean eta erabaki propioak hartzen dituztenean.

Ikasturtean zehar, astean behingo saioetan, ikasleek robotak egiten ikasi dute, eta haiek programatzen. Horretarako, ordenagailuak erabili dituzte, jakin beharreko kontzeptuak ikasi, burua eta eskuak martxan jarri, eta talde lanean oso lan polita egin dute ikasturtean zehar.

WRO (World Robot Olympiad) mundu mailan egiten den robotika olinpiada da. Haurtzaro ikastolako robotikako ikasleak bertan izango dira. Urtero, era guztietako frogak lantzen dira; aurtengoan, kutsaduraren inguruan lan egingo dute. Kategoriatan desberdinak daude: Open (proiektu irekia), Regular (helburu zehatzekin) eta Football. Kategoriatan bakoitzaren barruan, adin tarte desberdinetako ikasle taldeentzat era guztietako erronkak proposatzen dituzte.



Regular barruan, Elementary (2004 eta 2009 bitartean jaioak) eta Junior High (2001 eta 2003 bitartean jaioak) bereiz ditzakegu. Olinpiadara taldeka aurkeztu behar da, biko edo hiruko taldeetan.

Talde guztiek entrenatzaile batekin joan behar dute, eta edonork eman dezake izena.

Proposatzen dituzten erronkei aurre egiteko, LEGO piezak dituzten robotak muntatu behar dira eta txapelketa egunean 2 ordu dituzte bertan muntatzeko (programazioa eginda ekar dezakete). Aurten irabazten duenak Estatuko finalean parte hartuko du, Logroñon, eta bertan irabaziz gero, mundu mailako finalerako txartela eskuratuko litzateke, Indiarra!

Animo eta ongi pasa!!!



BERTSOLARITZA

Haurtzaro Ikastolan

Ikasturte amaierara iristen ari garen honetan, bertsoak bere lekua izan du ikastolan. Urtero egiten diren bi ekitaldiak arrakasta handia izan dute aurreneko.

Alde batetik, maiatzaren 18an Madalensoroko saioa burutu zen. Bertan LH 5. eta 6. mailako ikasleek parte hartu zuten eta mozorro eta guzti oso giro polita sortu zuten frontoian. Hauek bai artistak!



Bestetik, maiatzaren 19an XXXIV. Lexoti Sariketa ospatu zen jantokiko goiko solairuan. Haurtzaroko bertso eskolako irakasleak diren Jon Otegi eta Iraitz Mateok gidatu zuten saioa, bai idatzizko atalean eta baita ahozkoan ere. DBH 1, 2 eta 3. mailakoak aritu ziren bat-batean eta LH 5 eta 6. mailakoek lagundu zieten saioa osatzeko. Saio polita, alaia eta dibertigarria burutu zuten, bertsolaritzak etorkizun handia duela erakutsiz.

Zorionak denei eta segi bertsolaritzarekin gozatzen!



Eider Maya Sanzberrok

1. aipamen saria jaso du Gipuzkoako Eskolarteko XXXVI. Bertsolari txapelketan

Eider Maya Sanzberro DBH 1. mailako ikasleak hainbat sari jaso ditu aurtengo ikasturtean. Haien berri emateko bildu gara gaztetxoarekin, eta hauxe da kronika:

“Aurten, Gipuzkoako Eskolarteko XXXVI. Bertsolari Txapelketan, 1. aipamen saria jaso dut bertso paper kategorian, Eibarko Coliseo aretoan. Horretarako, aurretik Hernanira joan ginen Haurtzaroko gaztetxoak, finalean parte hartzera.

Ez da sari bat jasotzen dudan lehenengo aldia; izan ere, duela urtebete Oiartzungo Prosa eta Poesia Lehiaketan ere saritua izan nintzen, poesia alorrean.

Idazteaz gain, oso gustukoa dut kirola, bereziki futbola. Nire herriko futbol taldean jokatzen dut, Oiartzun Kirol Elkartean hain zuzen. Denboraldia amaitu berri dugu eta 3. postuan bukatu dugu. Borrondi baserriko Enrike Lekuona izan da gure entrenatzailea.

Bertso paper lehiaketara itzulita, hauxe da jarri ziguten gaia: **Zer egiten duzu aspertzen zarenean? Zerk sortzen dizu bizipoza?**

Eta hauxe da idatzi nuen bertso pare, «Minberatu zaigu» doinuan kantatzeko:

I

Neri ez zait gustatzen
bat ere aspertzea
oraindik gutxiago
ballet dantzatzea.
Soluzio onena
txantxak egitea.
Dibertitzen nauena:
adarra jotzea.

II

Triste nagoenean
da mundua hotza
irrifarrada beti
botika aproposa
nik farra egitean
pizten zait bihotza
umoreak sortzen dit
niri bizipoza.

June Manjarresek

R.M. Azkue Literatur Saria irabazi du

June Manjarres Castro DBH 2. mailako ikasleak irabazi du Resurrección María de Azkue Literatur Saria. Idazle gazteak literatura mundura erakartzeko sortuak dira Euskaltzaindiak eta Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioak antolatzen dituzten sariok.

Jakina denez, bi genero saritzen dira Azkue Sarietan: narrazioa eta olerkia. Genero bakoitzak bi kategoria ditu: A maila, 10 eta 13 urte bitarteko gazteentzat; eta B maila, 14 eta 17 urte bitartekoentzat. A kategoriako olerki alorreko bigarren saria eskuratu du Junek “Barkamenaren hazia” poesiarekin.

Ikasle honek gustuko du literatura eta idazten ere trebea dela erakutsi du beste behin ere; izan ere, Oiartzungo Udalak antolatzen duen Prosa eta Poesia Lehiaketako azken edizioan saria lortu zuen prosa alorrean. Era berean, Gipuzkoako Bertso Paper Lehiaketaren 35. edizioan June Manjarresek aipamen berezia jaso zuen iaz. Zorionak, June!



June Manjarres Castro gaztetxoa Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzan.



HAURTZARO IKASTOLAKO 50. URTEURRENA

Hasiak gara gure ikastolako urtebetetze ospakizuna antolatzen. Kantua badugu jada! Letra Antton Kazabonek sortu du, eta Xabi Solanok, beste musikari batzuekin batera, musikatu. Besteak beste, parte-hartzaileak izango diren Pirritx, Porrotx eta Marimototsen bisita izan genuen, ikastolako partaideon gozamenerako. Bideokliperako irudiak grabatu, gelak bisitatu, jangelako janaria dastatu, musuak eman, besarkadak zabaldu... egun konpletoa! Hiru pailazoek "Maitematika" irakasgaia azaldu ziguten egun osoz. Zortedunak gu!



HAURTZARO IKASTOLA- ZUBEROAKO IKASTOLAK Bide polita eta garrantzitsua egiten ari den proiektua

'Egün hon Oiartzun!' esan digute Sohüta eta Alozeko ikasleek elkarrekin topo egin dugun bakoitzean, dagoeneko momentu eder asko pasa baititugu elkarrekin.

2014ko Zazpiak bat eguna zela eta Oiartzunen elkartu ginen lehen aldiz. Bertan gure ikastola ezagutzeko aukera izan zuten eta harremanari hasiera eman genion.

Gutunak eta ikastolan egindako lanak alde batetik bestera bidaiatzen hasi ziren orduan: Alozetik Oiartzuna, Oiartzundik Sohütara, Sohütatik Oiartzuna, Oiartzundik Alozera... Etengabe joan etorrian, ikasturte bukaeran Alozeko ikasleak Oiartzuna hiru egun pasatzera etorri ziren arte.

2015eko irailean, Zazpiak bat eguna Alozen ospatu zenez, oiartzuarrok bisitan izan ginen bertan. Basabürüa ikastola ezagutu genuen eta ikastolaren eraikin berria non izango zen ere ikusteko aukera izan genuen. A zer nolako aldaketa!

Hazi honek, beraz, bi adar nagusi eman ditu: ikastoletako ikasleen arteko harremana eta familia arteko harremana. Bi adar, handik eta hemendik ongi zainduz gero fruitu ederrak emango dituztenak.

Ikasturte honetan, ikasleen arteko harremana sendotzeko, eskutitzak idaztean gain elkarren herriak ezagutzeko egindako txostenak ere trukatu ditugu. Horrela, ikasturte bukaeran egin berri dugun hiru eguneko ibilaldian herriak ez zaizkigu hain arrotzak egin. Bikaina izan da Zuberoako txokoak ezagutzea! Sohütako ikasleak ere etorri dira gurera, hiru egun zoragarri pasatzera. Festa bat ere egin dugu elkarrekin, eta gure harremana sendotzeko aukera paregabea izan dugu.

Bukatzeko, familien arteko harremanak ere egin du bere bidea. Oiartzundik Urdiñarbera joan gara lehenengo, musika jaialdi baten aitzakiarekin, eta Ikastola Eguna gurekin batera ospatzera etorri dira handik ondoren.

Truke edo harreman hau hasi besterik ez da egin, baina seguru gaude denon artean proiektua indartu eta gozatzen jarraitzeko aukera izango dugula!

**BIBA XIBERUA!
ZAZPIAK BAT!**

LH 4. Mailako irakasleak





URMENDI FESTA



Oraingoan, haur eskolari dagokion tarte honetan, 2015. urteari begira jarriko gara, eta, hemen ere, askotan errepikatu izan dugun ezaugarri esanguratsu bati helduko diogu; **Oiartzungo Udal Ikastola Partzuegoa (Urmendi haur eskola) gure herrian sortu eta txertatuta dagoen hezkuntza proiektu propioa dela.**

Behin ideia honen kontzientzia berreskuratuta, 2014/15 ikasturtean haur eskolako hezkuntza komunitatea osatzen dugun guztiok heldu genion erronka berri baten istorioa kontatzera gatoz; URMENDI FESTA-RENA, alegia.

Udal eta Ikastolako ordezkariekin hilero egiten ditugun Zuzendaritza Batzordeko bileretako batean sortu zen ideia honen lehenengo txinparta. Zer antolatu zezaketen haur eskolak Oiartzungo herritarrentzat?

Ondoren, haur eskolako guraso eta hezitzaileok osatzen dugun Batzorde Orokorrean proposamen honen berri eman genuen, eta aho batez heltzeko erabakia hartu zen, eta interes handiz, gainera. Beraz, hona ekarritako txinparta hau hauspotzeari ekin genion denok batera, gurasoak zein hezitzaileak izan.

Idea zaparradaren ondoren, pixkanaka asmoa zehaztuz eta finduz joan ginen hainbat bileratan. Horrelaxe sortu zen Urmendi festa egitearena. Ez zen erronka makala, baina bai berria, eta ilusioz bete!

Iritsi zen, azkenean, 2015eko maiatzaren 31ko igandea. Udaberriko egun eguzkitsua. Goizean goiz, gurasoak eta hezitzaileak Urmendi eraikinean elkartu ginen, eta txokoak atontzeari eta antolatzeari ekin genion: talo txokoa, frutarena, goxo denda, aurpegia margotzeko gunea, herri kiroleterako espazioa, antzerkirako eszenatokia eta azken entseguak; hori guztia, musikarik falta gabe, noski.

10:30 aldera hasi ziren gurasoak eta haurrak gurera hurbiltzen; familia mordoia bildu ginen bertan. Sarrean guztiak elkartu eta zenbait guraso eta hezitzaileen artean prestatutako antzerki polit batekin eman genion hasiera festari. Ondoren, Urmendiko plazaren bueltan atonduriko txokoak eta dendatxoak ireki genituen, eta haurrek haietan esperimentatzeko eta disfrutatzeko aukera paregabea izan zuten; haurrek eurek egindako taloak, fruta pintxoak, apaindutako madalenak... jan zituzten. Izan ere, gure txikiak izan ziren

egun hartako protagonistak! Baina gure sukaldariak helduontzat ere prestatu zuten hamaiketako goxoa.

Onartu beharra dugu kolorez beteriko festa alai eta zoragarria izan zela!

Izandako arrakasta ikusirik, hasiak gara bigarren Urmendi festa antolatzen aurtan. Datorren udaberrian ere, ez da gurean festa eta kolorerik falta izango, egon zaitezte ziur! Etorriko da, bai, 2016ko Urmendi festa!

Naiara Arbelaitz eta Ibintza Iragorri
URMENDI HAUR ESKOLAKO ZUZENDARITZA TALDEA



EUSKARAZ BIZI

LH 5. MAILAKO IKASLEAK 1. ZIKLOKO IKASLEOI

Urteak dira garai hauetan irakurzaletasuna indartzeko kanpaina egiten duguna. Aurtengo ere, tarte bereziak eskaini dizkiegu liburuari eta hark dakarren mundu zirragarriari.

Egin ditugun irakurzaletasun ekintza edo saio guztien artean, LH 5. mailako ikasleek egindako kontakizun saioa aipatu nahi genuke.

Gure geletara hurbildu ondoren, eserlekuan kokatu, arnasa sakon hartu, eta istorioari hitza jarri diote ikasleek. Ez edonola, gainera! Irakurketa argi, jarrai eta landu baten atzetik, istorioa jantzi duten irudiak ere erakutsi dizkigute. Zeinen ongi!

Oso gustura eta pozik gaude, bai baitakigu irakurzaletasunaren momentutik, guk ere laster aukera izango dugula txikiei ipuinen bat kontatzeko.

Beraz, eskerrik beroenak 5. mailako irakurleei gure belarriak gozatzeagatik.



IRAKASLEAK VS IKASLEAK

Aurtengo ere, Euskaraz Bizi egitasmoaren bigarren kanpainari amaiera polita emateko parada eduki dugu. DBHko ikasleek bi txapelketa jokatu dituzte: bata, pala txapelketa eta, bestea, futbol txapelketa.

Futbol txapelketa amaitzean, jada ohitura bihurtu den partida jokatzeko irakasleok DBHko txapelketa aurka. Aurtengoan, DBH 4. mailako A gelako ikasleek aurka ari zela tokatu zaigu.

Sortzen den giro politak, gure arteko harremanak sendotzeko ematen digun aukerak eta, batez ere, euskaraz jolasteko grinak batzen gaitu urtero ekimen honetan eta, emaitza gutxienezkoa den arren, aitortu behar dugu aurtengo ikasleek errepaso ederra eman digutela: 3 eta 1 garaitu gaituzte.

Aurrerantzean ere, antzeko ekimenetan bat egitea espero dugu. Datorren urterako entrenatzen hasiak garelako jakinarazi nahi diegu datorren urteko finalistei.

Jolastu euskaraz, euskararekin jolastu!



JUUL KANPAINA LH 2. ZIKLOAN

Urtero bezala gure ikasleak kanpaina honetan parte hartu dute gus-tukoan duten liburua eta ilustratzailea bozkatuz.

Bestalde, Oiarzungoan den Idoia Beratarbide ilustratzailea ere izan da gure artean. Bere ibilbidean egin eta ilustratutako liburuak ikus-teko aukera izan dugu.

Kanpaina bukatzeko, ikastolako 6. mailako ikasleak guretzat prestatu-riko hainbat ipuin irakurtzera etorri dira eta oso gustura entzun ditugu.

ANTTONEKIN ARRATSALDE ATSEGINA PASATU GENUEN.

Bertan, idazteko garaian izandako bizipenak kontatu zizkigun, eta irakurketarako aholku onak ere jaso genituen.

Mila esker, Antton!





IKASELKARREK ANTOLATUTAKO 8. IPUIN ETA ILUSTRAZIO LEHIAKETA

Aurtengoan ere, iazkoan bezalaxe, Haurtzaro Ikastolak, Ikaselkarrek antolatutako 8. ipuin eta ilustrazio lehiaketan parte hartu du. DBH 2. mailako ikaslea den Alazne Elgarresta ikaslearen "Zuretzako da, ama" lana sari-tu dute. Zorionak!

ZURETZAKO DA AMA

"Ni Shadia naiz eta ez nago nire jaioterrian, nik nahiko nukeen bezalaxe. Nire amak gauza gaiztoa egin zuela esaten dit beti, eta ez garela inoiz Indiara bueltatuko, inoiz ez! Inoiz ez dit esan nahi izan zer egin zuen, baina bai azpimarrazten dit ez egiteko berak egin zuena. Ez dut ulertzen, beti jakin nahi izan dut zergatik duela 6 urtetik gaurdaino urtero herrialdez aldatzen garen.

2010eko martxoaren 5a

Gaur Groenlandian aurkitzen naiz. Orain dela hilabete bat iritsi ginen. Hemen, inoiz ikusiak ez nituen gauzak ikusi ditut. Hezurak izozterainoko hotza, eta ni baino azkarrago igeri egiten duten animalia bitxiak. Nire amatxik esaten du "pinguino" izeneko animaliak direla, ez dakit ba sinestu ala ez, "pinguino" izen bitxia baita hauek bezalako animalia batzuentzat. Hemen, pinguino bat egin dut lagun, Markos izena jarri diot! Amatxiri asko gustatu zaio izena. Uste dut Markos Ankoren laguna dela. Anko orain nagoen herrialdeko txakur bat da, Pintto bezalakoa, zuria eta beltza. Oso lagunkoia da denekin, niretzat hartu nahiko nuke, baina amatxik ez ditu animaliak gustuko.

2011ko abuztuaren 21a

Irlandan nago. Edo hala esaten dit amatxok, berari egin beharko kasu. Hemen lagun asko egin ditut eskolan. Laster joan egin behar dugu beste leku batera, hala ere. Nire laguna ni baino txikiagoa da eta Jackie izena du. Asko gustatzen zaio mozorrotzea eta bere aita janzten den bezala janzea. Bere aita zaldi handia du eta Irlandako Erdi Aroko ikuskizun batean egiten du lan bere zaldiarekin batera. Nire lagunaren aita agindu dit Popiren gainean ibiltzen utziko didala beste leku batera joan baino lehen. Popi zaldiaren izena da, egia esan, ez dakit, baina animaliei nik asmatutako izenak jartzea gustatzen zait.

2013ko uztailaren 16a

Egia esan, ez dakit zein herrialdetan aurkitzen naizen. Gaztelu baten ondoko etxe txiki batean gaude. Hau ez da etxe bat, etxe bat baino txabola bat dela gehiago esango nuke. Gaztelua "Lloret" izenekoa da eta barruan Erdi Aroko gauza piloak ikusi ditugu. Nire amak opari egin dit hara joatea gaur nire urtebetetzea delako. Barruan gurdi polita ikusi dugu, Popirekin gogoratu naiz, Indira lagunarekin, bere aitarekin... asko botatzen dut faltan Irlanda. Gaztelu honek itsasertzean egoteko zortea du, niri itsasertza asko



gustatzen baitzait. Han itsasontzi batetik kaioei arrain txikiak ematea gustuko dut. Antxetei arraintxoak asko gustatzen zaizkie, niri beraiei janaria ematea bezain beste.

2015ko martxoaren 12a

Burmanen gaude. Hau Indiaren ondoan dagoen herri bat da. Nire amak zerbaitegatik ekarri nau hona. Nire amak esaten du, edozein momentu izan daitekeela nirekin eta munduan pasatzen duen azkena. Hala ere, oraindik ez dut ulertzen zergatik ez didan orain artean egindakoaz deus ere ez azaldu nahi izan. Hemen nagoela jakin dut zergatik etorri garen honat: inoiz ikusi dudak ostadarrik ederrena ikusteko. Hainbat kolore dauzka Erromako zubiak, ederra da. Katu ugari ikus daitezke lurralde honetan. Nire amak beti esan izan dit nire izaeran katu baten antza daukadala: "pixkorra" eta maitagarria. Hemen katu polit eta ederrak ezagutu ditut. Inoiz egon naizen lekurik politena da. Eta poztan naiz urte hauek guztiak nire bizitzako pertsonarik garrantzitsuenarekin igaro izanaz.

Burmanen, Shadiaren ama atxilotu dute, alabak inoiz jakin ez zuen gauza harengatik eraman dute preso. Umezurztegi batera eraman dute Shadia, nahiz eta haur bat ez izan. Umezurztegian, denbora luzea du amarengan pentsatzeko, eta munduan eta bere bizitzan zehar gehien maite izan duen pertsonarekin batera ikusi eta ezagutu dituen gauza eta oroitzapenak marrazki batean islatu ditu. Amarentzako oparia da. "Marrazki hau zuretzako da ama" izan ziren amari esan zizkion azken hitzak. Izan ere, poliziak ama herrialde urrun batera eraman baino lehen, amak bere begiradarik sakonenarekin margolana ferekatu zuen.

ALAZNE ELGARRESTA DBH 2 A





Kaixo Txinpartzale!

Beste behin' re alletu da ikasturte bukaera ikastolan ta, horrekin batea, guri' re alletu zaigu urte honen bukaera. Bukatu da Kuadrillategi 2015/2016.

Beste Txinparteko aletan kontatzen jon ga gue nondik norakuk, biño bukaera hontan, laburpen ttiki bat in nahi genuke kurto so hau nola jon den frexkatuz:

Dakizuten bezela, Kuadrillategi DBH 1 ta DBH 2ko ikasliri eskeintzen den Oiarzungo Udalan egitasmo bat da, TturTtur Euskaltzaleon Bilgunik kudeatzen duna. Helburu nagusiya, gaztiak beren aisialdiyan euskeraz aitzia da. Ongi pasatuz, euskera beaien komunikaziyo tresna izatia.

Hala, urteroko moun, irailin aurkezpenak in genittun herriko bi ikastetxetan ta iñoiz biño gazte gehiok eman zuten izena; pen-tsa, 160 gazte! Ta kopuru horrei ber bezela erantzuteko (o saia-tzeko, behintzat), taldia bi zatitan ittia erabaki genun:

DBH 1ekuk 17:00 - 19:00 bittarte elkartu ga ostiraletan, eta DBH 2kuk, berriz, 19:30 - 21:30 bittarte. Egiya san, hasieran gue buruhauste ta zalantzak izan bagenittun re, oan, ikasturte bukaeran, emaitzakin konten gaude.

Nahiz ta bi talde izan, gue funtzionamendua aurreko urtekon oso antzekua izandu da: talde bakotxan barrenin, talde ttikiyak in ttugu ta hezitzaile bakoitza taldetxo baten arduradun izan da. Hiruhilabete bakotxeko lehenengo egunin, taldetxo berriyak ta hiruhilabete hortako plangintza in ttugu. Geo, astelehe-nero taldetxo desberdin bat etorri da ostiral hortako plangin-tzatutakua prestatzea ta, gehinin, DBH 1 ta DBH 2kukin ekintza berak in ttugu.

Hala, ostiraletan jolasak kanpun, mahai jolasak, ginkanak, antzerkiyak, mozorruk, herri kirolak, beldur gaua, arratsalde zikina, merendola, pizza tailerra, karaokia, ur jolasak, bideo gra-baketak, zinia... in ttugu.

Horrez gain, Txuri Urdinea irteera, Autobus Magikoan bixita, "Sketx lehiaketako" sari banaketa, Donostira irteera... re in ttugu ekintza berezi bezela. Gañea, DBH 1. mailakukin Arantzako Irrisarri parkea jon ga, ta DBH 2kukin Madrilgo Warner parkea, asteburu pasa (gaztiak beak intako iniziatiba polittan ondoriyoz).

Laburbilduz, PRIMERAKO URTIA IZAN DA!

Oan, ikasturte bukaera bakotxin bezela, DBH 2ko gaztaiak agurtzeko ordua iritsi da... Bixitan bat in tarteka... ta animo! Aprox-tu gaztarua ta aproxtu bizitza! Beti euskeraz, e! Je, je! Plazer bat izandu da bi urte hautan zuekin eotia. Kuadrillategiko atiak iriki-yak ttuzute!

DBH 1ekui, berriz, datorren ikasturte arte! Udara disfrutatu ta irailin ekintza berriyak itteko goguakin bueltatu!

Bukatzeko, LH 6. mailakuai... irail arte! Animatu Kuadrillategira! Ta zuei, Txinparteko irakurliai, udara aproxtu ta disfrutatu! Dato-rran ikasturtin kontatuko berriyak. Bittartin, ongi-ongi segi!



ESKUTTUN

DBH 4. MAILAKO IKASLEEN AGURRA

Azkenean iritsi zaigu hainbeste miresten genuen amaiera, agur esateko momentua. 4 urtez egon gara talde txiki eta, aldi berean, handi honetan. Lana, barreak eta kilometro asko egin ditugu euskararen alde, eta egiten jarraituko dugu, ikastola honetan ez bada ere.

Bestalde, eskerrak eman nahi dizkiegu gurekin egon diren ikasle, ikasle ohi eta irakasle guztiei; hain zuzen, Donibane Azkarate, Maider Lekuona, Uxue Flamarique eta Haizea Saez de Egilazi, batez ere talde hau aurrera eramateko ostiral eguerdiro eduki duten pazientziagatik, ez baita lan erraza.

Beraz, besterik gabe, eutsi eta jarraitu euskararen alde urratsak egiten, denon artean lortuko baitugu!

Bizi euskaraz, jolastu euskaraz, ligatu euskaraz, maitatu euskaraz, egin parranda euskaraz eta egin oihu euskararen alde ezarriak lehertu arte; esan bezala, pauso txiki-z osatuta daude helburu handiak!

2015/16



Kuadrillategiko hezitzaillik

HAUR HEZKUNTZA 1

BASERRIRA BISITA

hatzak
BETE LAN



HH 1eko IKASLEOK BASERRIAREN GAIA LANDU DUGU. ESAN BEHARRIK EZ DAGO ZENBAT GUSTATZEN ZAIZKIGUN BERTAKO ANIMALIAK! HORI DELA ETA, BASERRIA GERTUTIK EZAGUTZEKO, KOXKOTENERA HURBILDU GINEN. EDERKI PASATU GENUEN, ETA, HORRETAZ GAIN, ASKO IKASI DUGU, BESTEAK BESTE, UKUILU BAT ZERTARAKO DEN, HAN ZEUDEN ANIMALIEK ZER JATEN DUTEN, BARATZE BAT ZER DEN... GUREGATIK, EGUNERO JOANGO GINATEKE, BAINA EZIN DENEZ... ESKERRAK, DENEN ARTEAN, GURE BASERRIA SORTU DUGUN IKASTOLAN!

HH 1eko IKASLEAK



HAUR HEZKUNTZA 2

LEKUNGARAI BASERRIAN

LANBIDEEN GAIA LANDU
ONDOREN, ETA UDABERRIAN
MURGILDURIK, LEKUNGARAI
BASERRIRA JOAN GARA
AGENDA 21 PROIEKTUAREN
ESKUTIK. BERTAN, ARDIAK ETA
GAZTA NOLA EGITEN DEN
IKUSTEKO AUKERA IZAN DUGU.
GAZTA GOXOA DASTATU ETA
GERO, INDARBERRITUTA, TTIPI-
TTAPA KARRIKARA JAITSI
GARA. HAN BAZKALDU ETA
JOLASTU ONDOREN,
ALTZIBARKO PARKEAN
PRIMERAN IBILI GARA.
MILA ESKER, LEKUNGARAI!



HAUR HEZKUNTZA 3 ERLEEN BIZITZA EZAGUTZEN

GELAN, GAUZA MORDOA IKASI DUGU ERLEEI BURUZ, ETA, INFORMAZIO ASKO GEUREGANATU ONDOREN, IRTENALDI BAT EGIN DUGU ERLAUNTZAK IKUSTERA. AIAKO ITURRARAN PARKETXEA BISITATU DUGU, ETA, BERTAN, IKASITAKOA BAIEZTATU: LOREEN POLENA LUPAZ IKUSI, ERLAUNTZAK BISITATU eta EZTIA, PROPOLEOA, ERREGINA JELEA ETA POLENA DASTATU. AZKENIK, ERLEAK EGINDAKO ARGIZARIAREKIN KANDELAZ EGIN ETA ETXERA EKARRI DITUGU.





LH 1. zikloa - 1. MAILA

1. MAILAKOK GREZIA ETA ERROMA!
BURUZ IKOSTEN

1. Mailakok hiruilabete honetan
Grezia eta Erromari buruzako
ikazi dugu. Hona hemen argazki batzuk!



DBH 4 ^{koak} ^{erromatarren} ^{bizimoduaz}
eta greziarren ^{kontatu} ^{ziguten}



Artoleskin jolasten aritu
gure maza vestuta oiarro
museoan.




Artoleskin jolasten aritu
gure maza vestuta oiarro
museoan.

Ikastolaren eguna 2016











LH 1. zikloa - 2. MAILA

ARTISTA TXIKI HANDIAK

Bagatoz berriz ere zuen artera, gure artera. Ikasturte amaierako azken idatzia denez, sormenari behar-beharrezkoa duen lekutxo egitea pentsatu dugu. Zerbait sortzea ez da txantxetako gauza, ez horixe! Eta horretan saiatu gara orain arte. Artista handi eta ezagunen bideak landu ditugu hiruhileko honetan: Picasso, Chagall eta R. Mendiburu, besteen artean. Gero, mantala jantzi eta artista txiki handi bihurtu gara. Bai, handiak gure txikitasunean! Egia esan, gure pentsamenduei hegala jartzea bezalakorik ez dago.

Bueno, utzi egin behar zaituztegu, lurtarrok, plastika saioa dugu eta!

LH 2



LH 2. zikloa - 3. MAILA

2015eko apirila

Aurrean, ikasturteko azken hiruhileko biribila

Firin-faran AIREA dantzan,
sudurretik sartu, birikak puztu ta diafragma beherantz.
Bizidunentzat behar-beharrezkoa,
bestela egin ezazu esandakoa:
itxi sudurra, itxi ahoa, ta ikusiko duzu gertatutakoa.
Mugitzen denean sortzen da HAIZEA,
batzuetan dator onurak ekartzea:
windsurfa ta parapentea,
belaontzia ta ala-delta,
haize errotak ta energía eolikoa.
Eta bestetan urakanak ta tifoiaik,
ekar ditzakete kalteak.
Airea zaindu dezagun ta gutxiago kutsatu,
ta hori egiteaz ez zaitez lotsatu.
Airea, Haizea, Haizearen orrazea,
Txillida,
Donostiara egin dugu bixita:
Ondarreta, Kontxa, Oteizaren hutsa,
Urgulea goraka bultza ta bultza,
Bazkari goxoa, jolasa, ongi pasa,
Zurriola eta hiru hondartzak egun batean oinez pasa.

Zinera Oreretara
Bram Barrabas ikustera,
irakaslearekin ez konektatzeak
ikaslearengan ekar ditzaken kalteak.

Lehengo ohiturekin jarraituz,
Oreretan, Irunen, Oiartzunen,
sanmarkopilla dastatzen.
Ikastolatik San Markosea ttipi ttpa, ttpa ttipi,
ezin naizela iritsi,
ta gurekin bidaia euri-intza zirimiru,
halere bost axola guri.

Beti ere "Euskaraz Bizi",
ipuinak irakurri ta irakurri,
eta idazle gustokoena dugu Toti.
Ilustratzaile Idoia Beratarbide,
kontatu digu egindako bide.

Ta hiruhilekoa biribiltzeko
"Natura" dugu lantzeko,
Ekosistemak, bizidunak, bizigabeak, inguruak...
denok behar ditugu integratu
eta oreka lortu,
ikasturtea ongi bukatu,
eta UDAN GOZATU.





LH 2. zikloa - 4. MAILA

PLASTIKA

Gaztelaniako unitateko proiektua hainbat materialek flotatzen duten ala ez frogatzea izan da. Horretarako, taldean material desberdinez baliatuz barkuak eraiki ditugu.

Hasieran, taldean nolako barkua eraiki adostu genuen. Eta horrekin batera behar genuen materiala biltzeari ekin genion.



Plastikako saioak erabili ditugu talde-lanean barkuari forma emateko. Hori egiten ari ginela ohartu ginen zeinen garrantzitsua den zenbait gauza kontuan hartzea. Esaterako, barkuaren pisuak neurri egokia izan behar duela, ez hondoratzeko, ezta iraultzeko ere. Beraz, eraiki, apaindu eta osatu ondoren, Txarako errekatxora joan ginen flotatzen zutela ziurtatzera. Esan behar dugu, hainbeste buruhausteren ondoren, barkuak errekatxoan behera joateko froga gainditu zutela! AUPA GU!





LH 3. zikloa - 5. MAILA

LAGUN EZKUTUA

Gure zikloan, Gabonetan, opari ezkutua egiteko ohitura dugu. Oraingo honetan, beste buelta bat eman nahi izan diogu gaia-ri, eta "Lagun ezkutua" jarri dugu martxan hamabostaldi batean: egunerokotasuneko gauza txikietan elkarri laguntzea da helburua. Eta "ezkutua" izateko, zer hobe, tokatutako kideari ez ezik, beste batzuei ere laguntzea baino?

Oso ekimen emankorra izan da. Hemen dituzue bukaeran egin genuen solasaldian atera genituen hainbat ondorio.

"Laguntza emanaz ez naiz inoiz damutzen".

"Laguntzean konfiantza giroa handitzen da".

"Zuk laguntzean, laguntzajasotzen duzu".

"Laguntza emateak zoriontsu egiten gaitu"

"Lagunartea zabaltzeko modua ere izan da"

"Dibertigarria izateaz gain lagunak hobeto ezagutzeko ere balio izan du"

"Aberasgarria izan da"

"Hainbeste ibiltzen ez nintzen kideekin gehiago egoten naiz orain"

"Nire buruarekin harro sentitu naiz"



THE BOOK OF HORROR

Year 6 students have been working on "The Book of Horror" Project. We have read and found out interesting and scary information about different spooks such as vampires, mummies, ghosts, goblins and zombies. Thus, we have learnt how Egyptians used to mummify bodies for example, or that there are bats which are vampires.

After working on different songs and poems, we started creating our own horror story: it had to be scary, of course! We read each other's in class afterwards.

Here you have a couple of examples, we enjoyed them very much.

THE STAIR

Jenny is a girl, with blue eyes, blonde hair, she is cheerful and brave. The story started one day, one summer hot Thursday night, in Jenny's flat, at 24:00. In her house, she was watching one film of horror. The title of the film was "The blood". Jenny suddenly wanted to eat popcorn, but they were in the cellar. And in the cellar there was no light.

Finally, she went to the cellar for popcorn. She was going down the stair and ña, ña, ña... the stairs were squeaking, because they were damp. Jenny was scared going down the stair and suddenly one voice was saying Jenny's name: "Jenny, Jenny, Jenny", and later he said "You'll never go for this stair. Finally she started going up the stair and she rolled down the stair. Finally she stopped rolling down and, at that moment there was an opened door and she saw two people from the film and one was killing the other. Jenny shouted "Ahhhhh" and the killer started following her up the stair and Jenny was very very scared. The stair didn't finish. There were more and more, and the killer was near. The killer took her arm.

At that moment, Jenny opened her eyes and Jenny saw her mum's face saying:

- Are you okay?
- Where is the killer?
- Don't worry! Here is no killer, you have lost consciousness. – said mum.
- But Jenny was not quiet, because at that moment Jenny saw through the door, the shadow of the killer.

To be continued...

By Uxue Epelde.



THE HAUNTED MANSION

It was the year 2007 and there was a family in one house. In the family there were two twins, a grandma and the twins' mum and dad. Grandma was reading a new book, in the morning. The twins, Shelvi and Emma, were with their mobiles. And their parents were in the cinema.

When they were eating dinner the twins heard a sound, it was his mobile message. And the message said:


- Come to a party in the mansion 5 you are invited. At 16:30 you have a bus to go to a party. And at the end of the message said "anonymous". The twins said to his grandma. -We are going to the party. And their grandma said yes. But Shelvi and Emma's grandma didn't know the mansion was haunted.

The next day the twins went to the bus stop. And they got on the bus, the bus floor creaked. The girls were scared. The people of the bus were shouting. When the bus stopped the door opened. And there was a mansion. Mansion number 5.

- Look at that, it is a zombie, in the window!- said Emma.
- And there was Dracula- said Shelvi. The twins were scared. The girls entered the mansion. The mansion was with all types of spooks and it was horrific. The chairs with blood, the bats in the air... When they were at the table the girls heard a sound and the sound said:
- "This mansion is haunted you are going to stay here all your life, and we are going to kill you!" The floor creaked and there was one hole on the floor. Emma said :
- Oh no! The wall is squeezing and in the mansion there are 500 knives with blood, oh no!
- This is horrible! What are we going to do?- said Shelvi. The time passed and her grandma was waiting in the house reading the new book. Shelvi and Emma ran away. But there was one zombie killer in the mansion killing people. And the girls were scared. Shelvi saw a piece of paper with blood on the floor. She took it and she gave it to Emma.

Finally the girl went home. Emma gave the paper to her grandma and she said:-This paper, is a piece of my new horror book. This story existed millions of years ago. And now the horror old book is finished.


Created by Maren Vital.



THE WORLD OF INVENTIONS



Hirugarren ebaluazio honetan, askakizunen munduan murgildu gara ingeleseko arloan. Unitateko proiekturako, Kairos denbora lerro digitala erabiliz askakizun baten garapena eta asmatzaile baten biografia aurkeztu dizkiegu gelakideei. Hemen ikus dezakezue proiekturako deialdia, eta Ander Irazoki, Oihan Gordaliza eta Aitziber Erasunek egindako denbora lerroa.



The first coracle was invented by the Egyptians in 4000 B.C. This invention was built in Egypt. The sails of these coracles were made of reeds.



The first reed boat was invented in 1000 B.C., by the Phoenicians and the Greeks. Some of them had two or three decks of oars.



Christopher Cockerell was born on 4th June 1910. He was an English engineer. He realized that they needed a transport that supported more weight than the others so in 1955 he invented the Hovercraft. Because of that, he became very famous around the world. Four years later, he died at the age of 89.



DROGAMENPEKOTASUNAREN PREBENTZIO PROGRAMA

2015/2016 ikasturtean, Oiartzungo Haurtzaro Ikastolan, prebentzio ez espezifiko eta espezifiko landu nahi dira DBHko 2. mailako irakasle eta ikasleekin, drogamenpekotasun prebentzio unibertsalaren inguruko programaren barruan. Horretarako, orri batean, erabat modu anonimoan, ikasleek beren interes, nahi, beldur, jakin-min, etab. idatzi dituzte. Era guztietako galderak plazaratu dira eta, gero, lantaldetan banatuta bilatu dizkiete erantzunak ikasleek.

Hona hemen erantzun dituzten hiru galdera.

DROGA GUZTIAK KALTEGARRIAK DIRA? DENEK SORTZEN DUTE ADIKZIOA?

Hainbat informazio irakurri ondoren ondorioztatu dugu droga guztiak izan daitezkeela kaltegarriak ez badira hartu beharreko neurrian hartzen, eta guztira, droga guztiek sortzen dutela kaltea, gehiago ala gutxiago.

Hasieran, subjektuaren jarrera indartzaile positiboki kontrolatzen dute; hots, dakarren plazeragatik erosten, jokatzeko edo txateatzeko du. Azkenean, ordea, indartzaile negatiboki lortzen dute kontrola; hau da, subjektuak ondorez gaintzearren bilatzen ditu sexu harremanak, telebista edo lana. Une horretan jardura horrek eragin larria du menpekotasunaren eguneroko bizitzan, kontrola galtzen du, eta jardueretik menpekotasuna garatzen du.

URL: <http://www.argia.eus/argia-astekaria/1867/kontsumo-gizartearen-beste-drogak>
URL: <http://drogasmalasybuenas.blogspot.com.es/2012/05/drogas-buenas-o-malas.htm>
URL: <http://www.biorritmes.com/es/drogas-buenas-y-malas/>



NOLA SAIHETS GENEZAKE DROGETAN SARTZEA?

1. Giro maitekorra sortzea.
2. Adibidea; helduren bati jarraitzea.
3. Hasieratik segurtasuna egotea.
4. Mugak argi ezartzea.
5. Familian komunikazio iraunkorra izatea.
6. Drogei eta haien ondorioei buruz hitz egitea.
7. Erabakiak har daitezela sustatzea.
8. Bizitza proiektuen eraikuntza sustatzea.
9. Gizarte espazioetan, familiako kide bakoitzaren kuota egoerak, bizipenak eta etengabeko elkarriketa nagusi izatea.
10. Haur eta nerabeek denbora librearen kudeaketa egokia mantentzeko aukera ematen duten jarduerak egin ditzaten sustatzea.
11. Errazena baina aldi berean oso zaila dena ezetz esatea da.
12. Beharrezkoa izanez gero, lagun berriak egitea. Zure etorkizuna eta bizitza lagunak baino garrantzitsuagoak dira.
13. Burua hainbat gauza ezberdinekin betetzea. Adibidez: lana, gustuko ekintzak...
14. Beti gogoan edukitzea drogek sor ditzaketen arazoak, eta menpekotasuna sor dezaketela gogoratzea.

ZERGATIK ERRETZEN DUTE GAZTEEK HAINBESTE TABAKO?

Hauek dira gazteek tabakoa kontsumitzearen arrazoiak:

1. Ongi pasatzeko, animatzeko eta parranda egiteko.
2. Esperimentatzeko eta gauza berriak probatzeko.
3. Dibertsioari luzaroan eusteko.
4. Luzaroan esna mantentzeko edota logura berehalakoan ez etortzeko.
5. Desinhibitzeko, lotsa galtzeko edo erreprimutakoa gaintzeko.
6. Erlazioak hobetzeko eta sakontzeko.
7. Kuriositateagatik, zer sentitzen den jakiteko eta sentsazio edo zirrara berriak bizitzeko desioagatik.
8. Lagunek kontsumitzen dutelako, taldean integratua eta onartua sentitzeko; azken batean, "arraroa, desberdina edota bitxia" ez sentitzeko.
9. Lhes egiteko eta errealtatea beste modu batera ikusteko.
10. Debekatua dagoena egiteak gozamina sortzen duelako.
11. Nerbioak lasaitzeko.
12. Egonezinak, larritasunak, tristurak eta hutsunak estaltzeko.
13. Gustukoa dutelako eta plazera sortzen dutelako.
14. Eskola, familia... arazoak alde batera utzi edo ahazteko.
15. Erretzeak, haien irudiz, heldutasunera iristea dakarrelako.

Informazioa:

<http://www.euskonews.com/0124zbb/gaia12404eu.html>
http://www.edex.es/drogas_eu/seccion4-7-c.html
<http://www.maltapuff.es/enfermedades-tabaco-cigarrillo>
<http://zientzia.eus/artikuluak/koka-eta-kokaina/>
<http://www.cfnavarra.es/webgn/SOU/SERVICIO/BL/eusk/datedadainicio.htm>
<http://www.hiru.eus/eu/habitos-saludables/tipos-de-drogas>
<http://www.cocaonline.org/eu/info/#1>
/ Aldizkariak Drogen ezagutzan murgilduz (liburua)
8. or + 30. or.

Izaro Telletxea
Garazi Alberdi — June Sanzberro
Rocio Falero — Laiene Aranburu

Julen Lasarte — Paulo Gargallo — Manex Bert
Amets Arbelaiz — Asier Alkorta — Abel Salaberria
Maidar Iparragirre — Afrika Zapirain — Lidia Zaldua

Malen Elizasu
Uxue Eskudero — June Manjarres
Saioa Udaeta — Nerea Suarez





DBH 2

TEKNOLOGIA


DBHko TEKNOLOGIA IKASLEEN BURUHAUSTEAK: Mugitu, gelditu, motorrak... martxan!

Makinen kontrolari erantzungo dioten maketak diseinatu eta eraiki ditugu DBH 2. mailako ikasleok teknologia taile-
rrean.

Denetarik: garajeko atearak, funikularrak, pertsianak, igogai-
luak, edota makina erdiautomatikoak.

Talde bakoitzak berea gauzatu du, hiru edo lau taldetan. Eta hortxe aritu gara egur, torloju eta iltze tartean, motor, etengailu, pila eta kableen korapiloak askatu nahian, unean uneko arazoei irtenbidea ematen saiatuz...

Lortu dugu, eta badabil! EUREKA!





DBH 1-2

Arlo soziala

Eskola Agenda 21


DBH 1. zikloko Arlo sozialeko ikasle talde hau Agenda 21 taldean aritu da. Aurtengo gaia Elikadura eta hondakinak izan dela kontuan hartuta, ikasleak hainbat elikagairen produkzio prozesua aztertzen eta lantzen aritu dira. Haiek sortutako kartulinak ikastolan zehar banatu dira, eta hainbat paretatan ikus daitezke.



DBH 3

HIBAIKAKOEKIN ARRAUNEAN

Hautzaro ikastolak aukera ederra izan du aurten ere Hibaika arraun elkartearekin batela eta traineruak ikusi, eta ALA izeneko barkuan ibiltzeko.



Ekintza bi taldetan egin da: alde batetik, ibaian eta, bestetik, haien instalazioetan.

Bizikletaz joan, arraun egin... aukera ederra izan da ekintza osoa Gorputz Hezkuntzako arloaren bidez burutzeko. Bi txandatan egin zuten ekintza DBHko 3. mailako ikasleek, apirilaren 28an eta 29an.

Argazki hauetan egun hauetako une batzuk.





DBH 3



EUSKARAREN KALKO OKERRAK

Euskara arloan, gure hizkuntzaren kalko okerrak lantzen aritu gara. Hizkuntza guztiek etengabe hartzen dituzte hitzak aldameneko hizkuntzatik, batez ere bi hizkuntzak ukipenean badaude. Horiei kalko esaten zaie. Baina, askotan, kalkatzen ditugun egiturak edo hitzak ez dira egokienak, eta maiz okerrak gertatzen dira. Halakoak lantzeko jarduera batean, Euskal Herriko kaleetan eta zerbitzuetan topatutako hainbat kalko okerre argazkiak ikusi genituen. Horregatik, guk ere, kalean topatu dugun kalko oker ororen argazkiak aterako genituela erabaki genuen eta, ondoren, klase aurrean aurkeztu. Kalko okerrak ez ezik, euskarari maiz ematen dizkiogun ostikadak ere kontuan hartu ditugu gure ikerketa lan honetan.

Erne egon, gure herrian, Oiartzunen, eta baita ingurukoetan ere, topatu ditugulako horrelakoak: alegia, erdara moldei jarraituz egindako akatsak edota euskarazko akats ortografikoak. Ikusi gure adibide batzuk.

Argi dago euskal gizarteak ezjakintasun handia duela euskararen zuzentasunaren inguruan. Bukatzeko, zuei ere honako eskaera hau egin nahi genizuke: halakorik ikusiko bazenute, kaleko akats horiei guztiei argazkia atera eta DBH 3. mailako ikasleei helarazi. Ea irtenbide egokia ematera iristen garen.

Beñat Landa
Araitz Sagarna





DBH 4

Sormenari bidea emateari inoiz utzi ez diezaiogun!



DBH 3. eta 4. mailetan Plastika eta Ikusizkoen Hezikuntza hautazko irakasgaietan, Dei Gaztelumendi (Design) ilustratzaile oiartzuarraren bisita izan dugu maiatzean. Ikasketak Kanadan egin ondoren, marrazki bizidunak sortzen Ameriketako Estatu Batuetako zein Kanadako zinema ekoiztetxeentzat lan egin izan du. Gaur egun, bere diseinu estudioa du Donostian, eta Hollywoodeko Paramount Pictures ekoiztetxearentzat egiten du lan. Gurean ezaguna den Xabiroi aldizkariko azalak ere egin ditu hainbatetan. Hollywooden aurten aurkeztuko den proiektu berri batean buru-belarri aritu da azkenaldian, teknologia berriek sortzen duten distantziara lan egiteko aukera aprobetxatuz. Bideoen bitartez, ilustrazioak nola sortzen dituen partekatu du gurekin, irudimenaren munduan murgildu gaitu, eta etorkizunerako ikasleei baliagarri izango zaizkigun aholku interesgarriak eman dizkigu. Deik esan digu marraztetik inoiz aldendu ez den mutil oiartzuarra dela, eta ikasleok gure sormenari bidea emateari inoiz ez uztera animatu gaitu!





DBH 4

“Urruzunotarrak gehituz” literatur lehiaketan

sartuak izan dira

**Mattin Apaolaza, Lur Gaztelumendi,
Josu Ibarguren eta Nerea Mendiburu
ikasleak**



Gazteen artean euskaraz idazteko zaletasuna sustatzeko lehiaketa da “Urruzunotarrak gehituz”. Mattin Apaolaza, Lur Gaztelumendi, Josu Ibarguren eta Nerea Mendiburu DBH 4. mailako ikasleek bikaintasun aipamena lortu dute, Mattinek eta Josuk Poesia arloko B mailan, eta Nereak Prosa arloko maila berean. Lurrek bi arloetan jaso du saria.

Aipamena jasotzeak honako hauek dakartza: irailaren 5etik 9ra literatura egonaldia Elgoibarko Aubixa aterpetxean, aurtengo Urruzunotarrak bilduko dituen. Bertan, goizetan, literatura tailerra izango dute eta, gero, egunean zehar, beste ekintza batzuetan parte hartzeko aukera. Halaber, diploma eta saridunen lanak biltzen dituen Sagasti-berri saileko liburuaren ale bana jasoko dute.

“Urruzunotarrak gehituz” literatura ekimenak ikasleen artean euskaraz idazteko zaletasuna indartzea du helburu, hitz lauz edo neurtuz, euskarazko sormena belaunaldi berrietan indartzeko. Ez da asmo hutsa, joan den mende luzeko praktikak ondo frogatu duen gertakaria baizik: Urruzuno saria irabazi duten hainbat neska-mutil egungo euskal idazle ezagunen artean daude.

POESIA: B MAILA

- Mattin Apaolaza Cardona: “Azken geltokia”
- Lur Gaztelumendi Beristain: “Askatasun hegoak”
- Josu Ibarguren Elozegui: “Itsasoz beteriko mugetarantz”

PROSA: B MAILA

- Lur Gaztelumendi Beristain: “Kristal lodiaren beste aldean”
- Nerea Mendiburu Bravo: “Behingoz”





GURE ESPERIENTZIA **FRANTSESAREKIN**

Denok bezala, guk ere, bizitzan zehar, erabakiak hartu behar ditugu. Batzuk egunerokotasunean nahi gabe hartzen ditugu; beste batzuk, aldiz, gure etorkizunerako ezinbestekoak dira. Gure ibilbide hau LH 6. mailan hasi zen. DBH 1erako hautazkoak aukeratu behar genituen. Batzuei buru-jate zitala iruditzen zaie erabaki bat hartzea; beste batzuei, ordea, ez zaie batere zaila egiten. Hautazkoak Zientzia Tailerra, Antzerkia eta Frantsesa ziren. Zer egin? Guk argi genuen; izan ere, beste hizkuntza bat ikasten duzu, eta oso baliagarria da, kontuan izanda Iparralde hementxe bertan dugula. Gainera, hizkuntza bitxia eta polita iruditzen zaigu denoi. Maitasunaren hizkuntza, bai horixe! Baina ezin dugu esan bretoiekiko trukeak ez zuela zerikusirik izan erabakia-ekin; egia esan, horrek animatzen gintuen gehien. Esperientzia ezin hobea iruditzen zaizu aukeratzeko momentu horretan.



DBH 1era iritsi ginen. Ikastolako lehenengo egunak eta, bat-batean, Pilar Altuna iritsi zitzaigun gelara. Argi eta garbi dugu gure oroitzapenean zer egin genuen lehen egun horretan. Gainera, papera gordeta dugu gure koadernoan. Hitz egiten hasi zitzaigunean, ez genion ezer ere ulertzen. Beldurtu ere egin ginen; izan ere, zalantzan jarri genuen gure erabakia, baina ongi pasatzen ari ginen aldi berean. Urte horretako frantse-seko klaseetan oso ongi pasatu genuen. Hasiera batean, arraroa egiten zitzaigun, baina, gero, ohitu egin ginen. Denbora pasatu ahala, gero eta gehiago gustatzen zitzaigun frantsesa. Gelako materialen izena, gelan erabili beharreko espresioak, herrialde frankofo-noak... ikasi genituen, gure estralurtarraren eta haren planetaren aurkezpena egin genuen. Azkenik, erosketak egiteko garaian nahiz jatetxe batean eskatzeko garaian erabili beharreko esamoldeak eta hiztegia ikasi genuen antzezpenen bitartez. A! Eta aditzak jokatzeko eta ditxosozko konjugazioan trebatu ginen. Azterketek beldur pixka bat ematen ziguten, baina erraz ikasten genuen ikasi beharrekoa. Astean frantseseko bi ordu besterik ez genuen, eta horregatik, garrantzitsua zen klaseei ahalik eta etekinik handiena ateratzea. Etxerako lanek ez gintuzten kezkatzen; Interneteko itzultzailearekin moldatzen ginen. Izan ere, gure etxeetan, inork ez daki frantsesetik hitz egiten. Lehenengo urtea bukatuta, gustura sentitzen ginen frantsesarekin. Hurrengo urtea hasteko prest!



Bigarren urtean, Leire Lekuonarekin egin genuen Frantsesa. Harekin gehiago hitz egiten genuen jadanik, Pilarrekin ikasitako guztia baliatuz. Urte horretan ere asko disfrutatu genuen: antzerkiak egin genituen eta komikiak ere irakurri eta idatzi genituen. Gaia interesgarria izateak asko lagundu zuen gelako giroan. Gehienok gustura aritu ginen, baina batzuk aspertu egin ziren frantsesaz. Konturatu ziren ez zutela gogorik beste hizkuntza bat gehiago ikasteko. Guk, ordea, asko disfrutatu genuen hizkuntzarekin, beste askok bezala. Urte hori bukatu ahala, esan genezake pixka bat gehiago ulertzen genuela frantsesa.

DBH 3ra pasatu behar genuenean, jakin genuen hautazkoa aldatzeko aukera zegoela, baina gu gustura ari ginen frantsesarekin, eta gehiago ikasi nahi genuen etorkizunari begira. DBH 3ko udan, berri pozgarri bat jaso genuen. Ezin genuen sinetsi; algaraka eta irrikaz geunden denok, baina, aldi berean, beldurtuta. Frantseseko 3. edo 4. urtean, bretoiarekin trukea egiten zen apirilean, baina gurea irailera aurreratu zuten. Gu irailean joan, eta haiek apirilean etorri. Udaren amaieran, urduritzen hasi ginen jadanik. Ez genekien zer izango zen hura. Gehienoi iruditzen zitzaigun ez geundela prest oraindik, baina irakasleen animoekin, kontrakoa sinetsi genuen. Bi urte haietan zehar egindako ariketa, lan koaderno, apunte eta kanta guztiak bildu genituen udako egun batean. Horrek konfiantza eman zigun Bretainiako bidaian.

Ikastolan hasi ginen irailean. Egun haietan nahiko urduri ibili ginen denok. Frantseseko klaseetan bideoak grabatu genituen hangoei bidaltzeko eta hainbat paper eman zizkiguten, baliagarriak izango lirakeela koan frantseseko esaldiekin. Aste haietan, frantseseko lagunok bidaiaz hitz egin besterik ez genuen egiten: ea

nolakoa izango zen hango familia, nolakoa izango zen etxea, zer egingo genuen han...

"Hilabete bat eta Bretainiara, bi aste eta Bretainiara, aste bat, egun bat, ordu bat eta iritsiko gara, neska-mutilak!". Mila kilometroko bidaia zen, baina guri behintzat ez zitzaigun batere luzea irudituz; alderantziz, motzegia. Ez genuen iritsi nahi, oso beldurtuta geunden, baina oso emozionatuta, aldi berean. Herrira iritsi ginen eta denak oihuka hasi ginen, eserleku gainean eserita, isildu ezinik. Azkenean iritsi ginen, oso urduri, inork ez zuen autobusetik jaitsi nahi, leihotik begira bretoiei, pentsatzen "hura izango al da nirea... behar bada beste hori... ". Jaitsi ginen, maletak hartu, eta bretoiengana hurbildu ginen, gure izena entzuteko beldurrez. Zure izena esan, eta bretoiarengana hurbiltzen zara. Momentu horretan, buruan duzun gauzarik garrantzitsuen da: muxu bat ala bi? Segituan kotxera sartu ginen etxera joateko. Isiltasuna kotxean, zer esan, zer egin? Ez dakizu.

Hortik aurrera astea ederki pasatu genuen, Bresteko Oceanopolisera (aquariuma) joan ginen, algen ekomuseo batera, bretoiarekin bertako jolas tradizionalak ezaugu eta praktikatu genituen, kanoa antzeko batean ibiltzera ere animatu ginen... aste biribila. Azkeneko egunean festa bat egin genuen, dantzaz, kantuz... alaitua. Giro bikaina ziurtatua zegoen. Nahiz eta hasieran konfiantzarik ez eduki haiekin, aste amaieran, gure betiko lagunak balira bezala ikusten genituen. Bretainiako agurrean denak triste samar ginen; izan ere, haiengandik urrun gindoazelako, baina, aldi berean, denen aurpegietan poza sentitzen zen. Nabari zen esperientzia horretan denak oso ongi pasatu genuela.

Oiartzunen ginen bueltan, triste xamar. Han egunero





ibilaldi ezberdinak egiten ibili eta gero, ikastolara, errutinara. Harreman onak egin genituenez eta galtzea nahi ez genuenez, harremanetan egon ginen zazpi hilabetez. Azkar-azkar pasatu ziren. Konturatu ginenerako, hemen ziren jada. Ezin genuen sinetsi! Zazpi hila-bete horietan asko ikasi genuen frantsesean. Hala ere, haiek hona etortzean gaztelaniaz hitz egiten genuen. Apirilak 18 iritsi zen, bretoiak etortzeko eguna, denak irrikaz, eta oso urduri geunden. Sinestezina! Eguna iritsi zen azkenean! Gauean berandu iritsi ziren. Egun horretan familia aurkeztu eta etxea erakusteko denbora besterik ez genuen izan. Bigarren egunean denok ikastolan egon ginen futboleant, palan, saskibaloian... ibiltzen, eta hirugarrenean, berdin. Laugarren egunean, ostegunean, denok Arditurriko bidegorrira joan ginen, skatean, patinetean, bizikletan... buelta bat ematera. Ederki pasatu genuen! Bosgarren egunean, ikastolan egon ginen, eta gero Tartalo pizzerian afaldu genuen denok batera. Larunbat arratsaldean, berriz, Donostiara joan ginen; batzuk, Txuri-urdira eta, besteok, Igeldora. Gauean, denok batera Girizia elkartean afaldu genuen. Berandu arte parrandan ibili ginen! Igande goizean, Euskal Herriko kultura pixka bat erakutsi nahian, Dantzari Txiki eguna ikustera eraman genituen. Egun hartan, Oihartzunen euskal dantzak dantatzu zituzten hainbat herritako haurrek (luze xamarra egin zitzaizen). Igande arratsaldean ere, bretoi guztiekin Donostiara joan ginen, baina oraingoan Donostian barrena ibili ginen, izozki bat janez. Batzuk, Kontxa hondartzara joan ziren hondarretan futboleant ibiltzera. Beste batzuk, Donostian barrena souvenir-en bila. Ilunabarreko zortziak aldera etxera itzuli ginen. Azken egunean, astelehenean, festa bat egin genuen, berriro ere dantzekin, kantuekin, trikitiarekin eta, nola ez, patata tortilla askorekin. Berandu arte gelditu ginen ikastolan. Berriro ere, parrandan! Nabari da harrituta gelditu zirela hemengo erritmoarekin. Gauetan, oso nekatuta iristen ziren etxera. Izan ere, haiek ez zeuden

ohituta. Oso ongi pasatu zuten! Baita guk ere!

Hurrengo egunean, goizeko 8:00etan, bretoiak agurtu genituen, eta Bretoiara bueltan joateko autobusa hartu zuten. Tristura giroa nabarmena zen. Jende asko negarrez, besteak irribarre batekin aurpegian... Trukeari amaiera bikaina eman genion! Esperientzia bikaina! Errepikatzekoa, noski! :)


Guk hirurok argi dugu frantsesa ikasten segituko dugula oraingoz. Baliagarria da bizitzarako, eta asko gustatzen zaigu. Nahiz eta oraindik ia ezer ez jakin, jada ulertzen dugu zertxobait gehiago. Hurrengo urtean gehiago ikasiko dugulakoan, beste urte batez frantsesa egingo dugulakoan gaude.

Argi daukagu egin genuen aukeraketa LH 6. mailan, guztiz zuzena izan zela, eta gure etorkizunean baliagarria izango dela. Espero dugu frantsesez ongi hitz egiten ikastea.

Denak animatzen zaituztegu esperientzia honetan parte hartzera. Ez zaizue damutuko!

Agur bero bat eta, "Au revoir !"

DBH3ko ikasleak:
Kimetz Toledo Aizpurua
Leire Intxauspe Villegas
Garaa Felipe Lekuona
2016-05-05





FELIX MARAÑA

OIARTZON

Joan den urteko urriaren 28an, Felix Marañá Sánchez Oiartzo Batxilergo Ikastolara etorri zen bigarren mailako ikasleei hitzaldi bat ematera.

Felix Marañá gaztelaniaz idazten duen gipuzkoar idazle eta kazetaria da. Marañárenak dira, besteak beste, *Atadura de noche y arena* (1979, "Hondar eta gauezko loturak"), *Carlos Sanz, por dentro* (1989), *Memoria de Gabriel Celaya* (1993) eta *Sigfrido Koch* (1993). Bere

azken lanak: *Julio Caro Baroja, el hombre necesario* (1995), *Gabriel Celaya: señales de travesía* (1996), *Baroja gurea: Pío Baroja, 1872-1956* (1998) eta *Jorge Oteiza: elogio del descontento* (1999). Pío Barojaren inguruko kontuez hitz egitera etorri zen Oiartzo Batxilergo Ikastolara.


Izaera alaia izaki, ikasle guztiak adi eta isil-isilik eduki zituen areto nagusian azken bi klase orduetan. Selektibitateko gaztelaniako azterketarako irakurri beharreko liburuaz hitz egitera etorri zen, *El árbol de la ciencia*, hain zuzen ere. Nobela horren idazleari buruz, Pío Baroja, asko daki Felix Marañak, eta idazle honen jakituria eta ideologia maitatu eta ulertzeko grina piztu nahi izan zuen Batxilergoko bigarren mailako ikasleen artean; baita lortu ere, hainbat ikasle eta irakasleren galderei erantzuten ibili baitzen duda guztiak argi gera zitezen.

Felix Marañá oso idazle eta kazetari garrantzitsua da Euskal Herriarentzat, gaur egun ia ahazturik dauden idazleei ahotsa ematen baitie bere artikulua eta liburuetan. Idazle horien artean gehien errepikatzen duena Pío Baroja da. Marañak azaldu zuen Baroja ez zela euskal idazletzat jotzen, gaztelaniaz idazten zuelako. Baina Marañaren lan eta esfortzuek fruitua eman zuten eta gaur egun, gutxienez, Pío Barojari buruzko liburu bat argitaratzea lortu zuen Bilboko Udalarekin elkarlanean. Oraindik ere borrokan dago Donostiako Udalarekin, Baroja donostiarra izan eta oraindik errekonozimendurik eman ez diotelako.

Marañak kazetaritzaren munduan nola sartu zen azaldu zien ikasleei eta hitz hauek esan zituen hitzaldiari hasiera emateko: "Yo no quiero que mañana, al recordar la charla de hoy, me recordéis a mí, sino que recordéis cómo era Baroja."

Markel Galdos
OIARTZOKO IKASLEA





	+		-		=1
x		x		+	
	+	1	:		=2
-		x		-	
	-		-		=2
=4		=6		=4	

5	3			7				
6			1	9	5			
	9	8					6	
8				6				3
4			8		3			1
7				2				6
	6					2	8	
			4	1	9			5
				8			7	9



4. ILARA: Olaciregui Huici, Lide - Mendiburu Bravo, Nerea - Otermin Escudero, Eneko - Rodriguez Lizaso, Endika - Echaniz de Lucas, Maider - Cortajarena Cancellada, Iker - Cazabon Cousillas, Nikolax - Alberdi Oyarzabal, Udane - Apaolaza Cardona, Mattin - Oiarbide Agirezabala, Xabier - Garaiar Iparragirre, Naiara - Castaño Coedo, Maider.

3. ILARA: Sevillano Iragorri, Uxue - Manchoño Jauregi, Aiora - Urdapilleta Arnuabarrena, Itzi - Iturain Mujica, Gorka - Martiarena Mendiburu, Xuban - Ibarquren Elosegui, Josu - Gaztelumendi Beristain, Lur - Sein Lasa, Oroitiz - Isasa Zufria, Leire - Lizarraga Etxeberria, Asier - Ezkerro Ameztay, Maider.

2. ILARA: Oiarzun Espinosa, Zuhaitz - Agudo Telleria, Albert - De la Peña Posse, Luka-Anton - Irazusta Arocena, Izar - Udaeta Lizarazu, Maialen - Peña Franco, Nahia - Felipe Lekuona, Beñat - Elgarresta Isasa, Garazi - Oiaiz Gorostidi, Aitor - Aristizabal Diaz, Ekhi - Galardi Santiago, Iker - Rodriguez Tello, Ane.

1. ILARA: Barreto Sagarazu, Oihan - Galdos Cardenoso, Leire - Agudo Lizaso, Leire - Fernandez Urquiza, Asier - Oiarbide Sanzberro, Garazi - Eizmendi Etxeberria, Xabier - Mitxelena Ugaldel, Intza - Alberdi Oyarzun, Xabier - Pagadizabal Portu, Ane - Mindegia Artetxe, Uxue - Fernandez de Gorostiza Diez, Xuban.

TXINPART65

www.hautzaroikastola.eus



Mendiburu kalea, 2 · © 943 49 47 19



GARRITASUN INDUSTRIALERAKO
SISTEMA ETA PRODUKTUAK

GOIEKO S.L.
Bidaurre Ureder Industrialdea
2. Pabilioia - P4 partzela
Ventas de Irún Auzoa - 20305 IRUN
Tfnua.: 943 634 536 • Fax: 943 634 537
goieko@oiacom.net



Industrias Tajo, S. Coop.



MONDRAGON
COMPONENTES



AENOR



Empresa
Registrada

ER-424/2/96



OIARTZUN

Zure Alcampo, egunero hobetuz



Easo Motor

FordFocus



Salmenta + Tailerra + Txapatan + eskaintza hoberenak

Lintzirin Poligonoa, 10 · 20180 OIARTZUN

© 943 26 04 26 / 943 26 03 91



902150404 943102055



GEZAK S.C.

KINLODEGOTAKO KIDEAKETAK
GOSTOEN INTEGRAL PEBLORPOTAKO



ELORSINGO KINLODEGIA • Euzkadi, 24
T: 943 492 550 • M: 629 761 802
F: 943 490 591 • gezak@telefonica.net
20180 OIARTZUN (Gipuzkoa)